


# B

BARREN



## Militarismoaren kontra beti

Intsumisioak 20 urte



# ATXUTXIAMAIIKA INAUTERIAK 2009



## EGITARRAUA:

17:00: ATXUTXIKARAOKEA

18:15: Atxutxikaraokeko partaideen artean sarien zozketa.

18:00: ZUHAITZ AISIALDI TALDEAK TXOKOLATE BEROA BANATUKO DU HERRITARREN ARTEAN.

18:30: GAZTETXOEN MOZORRO DESFILEA ETA KOREOGRAFIAK, 16 urte arteko gaztetxoentzat.

**OTSAILAK 21, ZAPATUA  
LEKUA: FORUEN PLAZA**

Oharra: Mozorro desfileen parte hartzeko, 16:30tatik aurrera plazan bertan izena eman behar da.  
Koreografietako musika talde bakoitzak ekarri behar du, CD formatoan.  
**ANIMATU, SARITUAK IZANGO DIRA PARTE HARTZAILE DENAK!!**

ANTOLATZAILEA:



Atxutxiamaika



ELGOIBARKO IZARRA  
haurralde gazteak

BABESLEAK:



Elgoibarko Udala  
Gazteria Sala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzak



## MARTINEA NEKAZAL TURISMOA

**ASTEBURUETARAKO ESKAINTZA  
(2 gau)**

2 plazetako etxea	100 €
6 plazetako etxea	200 €
12 plazetako etxea	400 €
16 plazetako etxea	550 €

Nafarroa (Donostiatik 50 km-ra)

Tel.: 610 613 157

[www.terra.es/personal5/martinea](http://www.terra.es/personal5/martinea)

## Kasualitateak

Bizitza kasualitatez josita dago. Laneko bidaia batean gindoazen Polonia aldera eta hegaldi atzerapen baten ondorioz, London Stansted aireportu inguruko hotel batean gaua pasatzen geratu behar izan ginen. Hoteleko jatetxean zerbait afaltzen ari ginela, neska zerbitzari batek ea euskaldunak ginen galdetu zigun gaztelaniaz. Neskaren itxurak eta hitz egitean zeukan azentuak garbi uzten zuten hura ez zela euskalduna, beraz nola antzeman zigun galdetu genion.

“Euskaraz ari zinetelako” izan zen bere erantzuna. Are gehiago harritu ginen bera poloniarra zela esan zigunean. Gu Londresen, Poloniara bidean, eta euskaraz ari ginela konturatu zen zerbitzari poloniar bat... adar jotze bat ez zen ba izango! Gure harridura somatuta, irribarre batez, azalpenak ematen jarraitu zuen: linguista izateko ikasketak egin zituen eta duela urte batzuk euskara ikasteko grina sortu omen zitzaion. Euskara-poloniera hiztegirik ez zegoela eta, Gasteizera etorri eta gaztelania ikasi zuen, ondoren euskara ikasteko. “EGA titulua ere badaukat” esan zigun harro asko, “erraza iruditu zitzaidan...” Ahaztu samartuta zeukala esan arren, euskaraz hitz egiteko betarik ere izan genuen, ez nahi haina ordea,

lanpetuta baitzebilan eta laister asko hots egin baitzioten beste bezero batzuk.

Gu joan ginen eta han gelditu zen euskaraz hitz egiten zuen zerbitzari poloniarra, roast beef-ak eta bestelakoak munduko hainbat tokitatik etorritako **b e z e r o e i** zerbitzatuz. Ez dut berriro ikusi, noski. Kasualitateak zailak dira errepikatzen.

Iñigo Otaño



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

.....

**“Bizitza kasualitatez josita dago,  
kasualitateak zailak dira errepikatzen”**

## BIDALI ZURE INAUTERIE TAKO ERRETRATUAK!

**Bidaltzaile guztien artean  
Martinea nekazal turismoan  
asteburuko egonaldia  
zozketatuko dugu bi lagunentzat.**

**MARTINEA I-II-III LANDA-ETXEA**

2tik 16 pertsonentzat.

Nafarroa (Donostiatik 50 km-ra)

Tel.: 610 613 157



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

Erretratuak bidaltzeko: [elgoiBARREN.net@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoiBARREN.net@elgoibarkoizarra.com)

**[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**







**“Edozein instalaziok baino gehiago eskaintzen dugu prezio merkeenean”**

**RAMON  
MUJIKA**

KIROL PATRONATUKO ZUZENDARIA

Urte berriarekin batera Elgoibarko Olaizaga kirodegiko eta Mintxetako azpiegituren eta prezioen gaineko kezak hasi dira herrian. Horren aurrean, Udal Kirol Patronatuko zuzendaria den Ramon Mujikak azalpenak eman nahi izan ditu. Bere ustez, ulergarria da krisi egoera dela-eta, diruari begira egotea, baina Elgoibarko prezioak inguruko herriekin alderatuta merkeak direla adierazi du. Instalazioei dagokionez, Mintxetan itoginak daudela badaki, baina padel pistak egiteko obren ondorioa dela azpimarratu du; eta pazientzia eskatu die herritarrei: “Azken batean, pare bat hileko kontua izango da, eta obrak amaitutakoan ez da arazorik egongo”.

## **Azkenaldian kexak egon dira kiroldegiaren inguruan: bat instalazioen inguruan.**

Azkenaldian kexa batzuk izan ditugu Mintxetako instalazioen inguruan: Mintxetako aldagelen gainean padel pista berriak egiten ari gara urtariletik hona. Horrek eragozpen batzuk ekarri ditu, itoginak, eta instalazio guztiak bukatu arte iraungo dute erabiltzaileen-tzako molestiek. Bi hilabetetan bukatuko dira obrak eta horrekin, sortutako eragozpenak. Bestela, Mintxetan, instalazio aldetik ez legoke kexa gehiago egon beharrik. Uztailean teniseko pista egin genuen eta aparkaleku ondoan kirol anitzetarako kantxa, eta baita BTT zentruaren harrera ere. Orokorrean, etortzen den jendea oso gustura geratzen da.

## **Aldageletako itoginez gain, dubxan ur hotza ateratzeaz ere kexatu dira herritarrak...**

Edozein etxetan ere, goizean lehenengo aldiz iturria irekitzen duzunean, pare bat minututan ur hotza ateratzen dela esango nuke, eta berogailua urruti badago, gehiago kostatzen da ur beroa iristea. Mintxetan gauza bera gertatzen da. Edozein egunetan 300 pertsona inguru dutzatzen dira Mintxetako aldageletan eta ez dago arazo nabarmenik. Hala ere, uste dut egun hauetan kexa nagusiak itoginengatik izan direla, eta horren aurrean pazientzia piska bat eskatu nahiko nieke erabiltzaileei: badakigu pare bat hilabetetan amaituko direla obrak, eta instalazio berri horiekin bazkide guztiek, eta erabiltzaileek orokorrean, beste eskaintza berri batzuk edukitu dituzte.

**“Erabiltzaileek ez dute ordaintzen erabileraren kostuaren %100, Udalak laguntzen du”**

## **Olaizaga kiroldegia, orokorrean, txikia geratu dela ere badiote erabiltzaileek.**

Txikia geratzen ari da, eta momentu honetan udaletxean aztertzen ari gara nondik nora jo, Elgoibarko kirol instalazioei dagokionez: kiroldegi berria egin edo daukaguna berri eta handitu. Bi aukera daude eta Udala klubekin parte hartzen ari da gai hau aztertzeko. Ingu-

ruko herrietako kiroldegiak ere ezagutzera joan gara eta etorkizunari begira hausnarketa sakon bat egiten ari gara. Oraindik erabakia hartzeko dago, baina urte honen amaieran edo 2010. urtean, instalazio berriaren edo daukagunaren berrikuntzaren inguruko proiektua esku artean edukitzea espero da.

## **Ekintzen prezioa da beste kexa bat.**

Aurten Kirol Patronatuko prezioei aplikatu zaien igoera KPla baino altuagoa izan da. Alde batetik, Kirol Patronatuko prezioak Gipuzkoako kiroldegiaren artean merkeenak direlako, Oñatirekin batera. Eta edozein instalaziok baino gehiago eskaintzen dugu prezioa merkeenean. Kanpoko eta barruko igerilekuak, tenis pistak, denbora gutxi barru padel pistak ere, rokodromoa, muskulazioko gelak, gela horretako monitoreak plangintza berezia antolatu diezazuke...; guzti hori hilean zortzi eurogatik eskaintzen dugu. Hori garestia al da? Neri ez zait horrela iruditzen baina ulertzen dut kexa hori orain bizi dugun krisiaren ondorioa dela; eta ulergarria da norberaren patrikari ondo begiratzea. Kontutan izanik klubek erabileraren guztia doan dela, jubilatuen gimnasia ere bai, eta 350 umeren igeriketa kanpainako ikastaroak ere dohainik ematen direla, gure prezioen politika egokia dela iruditzen zait. Urtero gehitzen dizkiogu zerbitzu berriak bazkide txartelari. Aurten bi padel pista eta otsailetik aurrera Zarauzko malekoiko span %25eko murrizketa edukiko dute Elgoibarko kiroldegiko bazkideek.

## **Udalak ere laguntzen du finantzan.**

Bazkideak, ikastaro edo alokera prezioen %40a udalak ordaintzen du. Erabiltzaileek ez dute ordaintzen erabileraren kostuaren %100a, Udalak laguntzen du zati garrantzitsu batean. Hausnarketa egin behar da portzentaia hori egokia den ala ez. Igoera KPla baino altuagoa izan da, instalazioak eta zerbitzuak mantendu egin behar direlako, baina hala ere beste herrietan dauden prezioetatik urruti gaude. Udalak diruz lagundutako zatia nahikoa dela uste dut, eta erabiltzaileek jasan beharko dute erabileraren kostuaren zatirik handiena, eta ez gainerako herritarrek.

## **Spinning egiteko adibidez, derrigorra da bazkide izatea. Zergatik?**

Horrela ez balitz bazkide ez direnek ikastaroengatik hileko 15 euro gehiago ordaindu beharko lukete. Eta diru horrekin urteko bazkideak ordaintzen ari zara. Beraz, bazkideak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili gabe

gehiago ordainduko lukete erabiltzaileek. Bi erataria jasotzen dugu dirua, baina guztiak bazkide izanda, eskaintzen duguna zabalagoa da, eta horregatik erabaki genuen horrela izatea.

## **Body Pump klaseak hasi dituzue, zer nolako harrera eduki dute?**

Bi talde eratu dira eta zaila izango da spinning edo pilates ikastaroak izan duten arrakasta izatea, baina ondo funtzionatuko duela espero dugu. Momentu honetan hiru gimnasio eta spinningeko gela bat erabiltzen ari gara ikastaroetan, eta hileroko 1000 pertsonak parte hartzen dute. Hala ere iharduera berrirentzako badaukagu oraindik lekua.

**“Bai ikastaroetan eta baita bazkideetan ere, berdin mantentzen gara iaztik hona”**

## **Igerilekua, baina, txiki geratu da.**

Ikastarotan 250 pertsonak parte hartzen dute eta nahiko meritu dela pentsatzen dut lau kaleko igerilekua dugula kontutan izanik: Ikastaroen ordutegietan zenbait aldaketa egin ditugu ume gehiago sartu ahal izateko, baina gauzak ez dira errazak igerilekuan. Guzti hau ere kontuan eduki beharko dugu kiroldegiaren egin behar diren aldaketak aztertzekoan edo berria egiterakoan.

## **Zein jarduerak erakartzen du jende gehien?**

Herrian hiru kirol jarduerak ezberdinak behar dira: kirol federatua, eskola kirola eta patronatutik eskaintzen diren jarduerak. Azken horietan jende gehien erakartzen dutenak igerilekua eta spinning dira: bakoitzean 250 pertsona inguru aritzen dira. Pilatesen 180 inguru, eta aerobiken 150; aerobika gainera orain dela urte askotatik mantentzean da. Jubilatuen kirola, dantza, karate... guztira hilabetero 1.080 pertsona inguru etortzen dira. Bazkideak guztira 4.000 inguru dira; bai ikastaroetan eta baita bazkideetan ere, iaztik hona, berdin mantentzen gara.

# 20 URTE BERANDUAGO ERE, INTSUMISIOA

“Natural sentitzen dut, egiten dudana eta natural egin, sentitzen dudana. Intsumiso egin naiz, horixe da dena”, hala dio Intsumisioari buruz Jon Sarasuak egin eta Oskorrik ezagun egin zuen bertso sortaren leloak. Hainbat elgoibartarrek ere horixe egin zuten: Intsumiso egin. Hogei urte pasatu dira intsumisioaren mugimendua sortu zenetik, baina ideologia hori ez da modatik pasatzen.

Edurne Burgaña

Intsumisioaren mugimenduak hoegi urte betetzen ditu gaur, otsailak 20. Haren aurretik, beste hogeit hamar urte zaramatzen objezio mugimenduak euskal Herrian. Hainbat gaztek paper bat betetzen zuten soldadutzari uko egiteko arrazoiak azalduz. Objeto eginen zirenak gero eta gehiago zirela ikusita, Estatuak ordezeko zerbitzu soziala sortu zuen. Soldadutzak bederatzi hilabeteko iraupena zuen, eta ordezeko zerbitzu sozialak 12 edo 14 hilabetekoa. Intsumisioa ordezeko zerbitzu sozial horren aurka sortu zen.

Izan ere, hainbat objektorek ordezeko zerbitzuak zigor bezala ikusi zituzten, eta intsumisioa estrategia bezala erabiltzea erabaki zuten.

Bi intsumitu mota zeuden: alde batetik, ordezeko zerbitzua betetzeari uko egiten zioten objektoreak, eta bestetik, zuzenenan soldadutzari uko egiten ziotenak. 1992 urtetik aurrera intsumitu zirenek bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra jaso zuten. Estatuak gartzelaren bidea hartu zuen intsumituek beraien borrokan jarraitzerako orduan beldurtu egingo zirelakoan. Hori ikusita, 1996 urteko maiatzean kode penal berria jarri zuten martxan.

## Gartzela zigorra

Kode penal berriaren arabera soldadutzaren intsumituentzat sei hilabete eta bi urte bitarteko gartzela ezarri zuten. Hala ere antezedenterik ez zuenak bi urte baino gehiagoko gartzela zigorra izan behar zuen gartzelaratu izateko. Horrela, lege berriarekin litekeena zen gartzelara inor ez joatea. Ordura arte urtebeteko gartzela zigorra zen topea libratu ahal izateko.



Baina kode penal berriak alde negatiboa ere bazeukan. Gartzela zigorrari hamar eta 14 urte bitarteko inhabilitazioa gehitu behar zitzaion. Administrazio publikoan ezin izango zuten lanik egin, ezta bekarik jaso edo etxea erosteko diru-laguntzarik ere.

Soldadutzari uko egin baina ordezeko zerbitzua egiteko prest azaltzen zirenentzat, bestelako zigorrak ezarri zituen kode penal berriak: alde batetik 70.000 eta 2.000 pezeta bitarteko isuna, eta bestetik zortzi eta 12 urte bitarteko inhabilitazioa.

## Gartzela zigorrari inhabilitazioa gehitu zion kode penal berriak

### Intsumisioa oraindik ere martxan

Intsumituentzat kode penal berria zaharra baino txarragoa zen, zigorra handiagoa zelako, eta kanpaina egin zuten *Kode penal berriak narru gorritan uzten gaitu* lemapean. Lege berriaren arabera intsumisoak sozialki baztertuak geratzen ziren, eta gehienek nahiago zuten gartzelara joan inhabilitazioa baino.

Elgoibarren bertan, intsumisioaren mugimendua handia izan zen, eta gazte asko intsumitu ziren. Batzuk gartzela zigorra ere bete behar izan zuten horren ondorioz.

Gaur egun, soldadutza ez da derrigorrezkoa, eta intsumisioaren ideologia erdi lo dagoen arren, garai bateko intsumituek intsumiso izaten jarraitzen dute. Izan ere, intsumitua dena soldadutzaren aurka, eta orokorrean, armen aurka dago. Eta gaur egun, soldadutzara joan beharrik ez dago armak ikusteko: munduan dauden gerra guztiak ikustea besterik ez dago.





## LUTXI ARREGI Intsumisioa

**Hogei urte bete ditu intsumisioak. Zela bi-zi izan zenuen orduko egoera?**

Institutuko ikasketak amaitu eta luzapena eskatu nuen, bai nik eta baita nire koadri-lakoek ere. Baina luzapena amaitu zenean, ez zitzaigun besterik geratzen: 1991 urtean soldadutzara joatea tokatu zitzaidan. Mungiara joan behar nintzen, baina ez nintzen azaldu.

**Epaiketak etorri ziren ostean.**

Herrialde guztietan ez zen berdina izan: Nafarroan adibidez gogorragoak izan ziren eta jende gehiago sartu zuten kartzelara. Baina Bizkaia eta Gipuzkoan ez zen horrela: berez, bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra tokatzen zitzaigun, eta urtebeteko zigorra ematen zuten. Baina gutxienez bi urte behar zirenez kartzelaratzeko, aske geratzen ziren intsumitu asko. Hala ere, nire kasua ezberdina izan zen: bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zidan epaileak, eta kartzelaratu egin ninduten.

**Etxera joan zitzaizkizun bila, baina ez zintuzten aurkitu.**

Etxera etorri ziren bai, baina ordurako ez nengoen etxean. Andoaingo Zapa enpresan kateatu ginen. Armak egiten zituen enpresak eta gure asmoa handik kartzelara joatea zen. Intsumisioen borroka beti izan zen aurpegia eman eta ez ezkutatzea; salatzea. Ekintza horrekin industria armamentistikoa eta gure egoera salatu nahi genituen; baina ertzainak etorri, kateak askatu, eta ez ziguten ezer gehiago egin. Egund berean, arratsaldean, Gurutze Gorriaren zozketa zegoen Donostian, eta hara joan ginen. Baina Donostian ere ez

## “BI URTE, LAU HILABETE ETA EGUN BATEKO ZIGORRA JARRI ZIDAN EPAILEAK ETA KARTZELARATU EGIN NINDUTEN”

gintuzten atxilotu. Ordurako askotan pasatzen ziren etxetik eta egoera deserosoa zen. Gure kontzientzia ari ziren epaitzen, eta hori salatzeko Donostiako epaitzegira joan ginen kateatzeko; baina han ere ez gintuzten atxilotu. Ekaina hasieran etorri ziren etxera lehenengo aldiz, eta uztaila erdialdean sartu ninduten espetxean. Martutenera joan ginen kateatzera, eta handik, barrura sartu gintuzten.

**Zigorra osorik ez zenuen bete baina.**


Hamabost egun egin nituen espetxean, baina intsumisioa baretzeko-edo, hirugarren gradua azkar ematen ziguten. Bari-xakutik domekara etxera etortzen nintzen, eta horrela egon nintzen 1996ko irailera arte. Urte eta bi hileko zigorra bete nuen.

**Heritarren aldetik babesik jaso zenuen?**

Alderdi politikoak, gehiago edo gutxiago, baina orokorrean gure alde zeuden. Kalendar ere, intsumisioa ondo ikusitako borroka zen: pila bat ginen, eta gainera jende ezberdina.

**Intsumisioaz aprobetxatu zenik badago?**

Bai. Soldadutza egitea tokatzen zenean, bat baino gehiago intsumisio egin zen. Batzuk benetan ideologia hori geneukan, gehienok; baina beste batzuk ez.



*Rafa Feijoo izan zen Elgoibarren epaitu zuten lehen intsumisioa 1993an.*



*Argazkian agertzen direnak garai hartako intsumisio batzuk dira.*



*Kultur Etxean obrak egin zituztenean, andamiotik zintzilikatu ziren intsumisioak.*

## INTSUMISOAK BETI INTSUMISO



**Abel Irizar**

Intsumisio mugimenduak 20 urte bete ditu. Hogei. Berrogei beteko ditudan egunean bertan. Samurtasunez gogoratzen ditut garai haiek. Gazteak ginen, ameslariak, ideologiarekin koherente izan nahi... Eta arazo handi bat genuen, soldadutzara joan beharra, derrigorrean. Espainiako armadak

eraman nahi gintuen, gutun bidez, indarrez. Eta bizitzan erabakiak hartzen irakatsi zigun egoera hark: soldadutzari ez; prestazioari ez; eta azken muturreraino; irribarrez.

Lau berbarekin definituko nuke intsumisio mugimendua: estrategia; ausardia; aniztasuna; orijinaltasuna. Eta Elgoibarko Talde Antimilitarista gogoan: kartelak eta kartzelak, kontzertuak eta manifik, ilusioak eta beldurrak, Kakitzat eta MOC, epaiketak eta inhabilitazioak, Lutxi eta Rafa Feijoo, prestazioa tranpa da, bi-urte-lau-hilabete-eta-egun-bateko zigorra, gerrarik ez, ertzainak etxera, indultua...

Desobedientzia izan zen gure armarik onena: ezer egitea baino, ez egitea. Ekintza sinpatiko eta solidarioetan oinarrituta. Kolo-

re eta ilaje guztietakoak elkar hartuta. Intsumisioen desfile ausarta.

Luma batekin egurra moztea bezalako izan zen. Inozo, baina tinko. Denbora genuen lagun. Eta militarren armada gaindiezina gaudituz genuen. Armarik gabe, apaltasunez. Arrazoiaren indarrarekin. Estrategiarekin, ausardiarekin, pluraltasunez, modu orijinallean.

Gure alaba zaharrena jaio zen urtean egin zuten soldadutza azken sumisoek. Azkenean denak intsumiso. Gizartearen eskabidea, eta azkenean eskubidea. Mugimendu eredugarria. Kopiatzeko modukoa. Harrotasunez gogoratzekoa. Eta ospatzekoa.



**Gaizka Argarate**

Aspaldi izan zen intsumisioaren kontua, baina momentu oso aktiboa izan zen. gazte asko mugitu zen eta esperantza bat zegoen, eta zatitxo bat bada ere bete zen.

Soldadutza derrigorra zenean, mugimendu sozial handiena, hori amaitzeko izan zen. Gazte asko mugitu zen euren egoera pertsonala konpontzeko batzuk, eta baita

militarismoaren aurka joateko ere. Gaur egunean gehiengo militarismoaren kontra gaudela uste dut: ikustea besterik ez dago munduan zenbat gerra sortzen diren. Baina bigarren plano batera pasatu da, ez dago garai bateko mugimendua; beste txispa bat behar da gaur egunean, berriz ere mugimendua pizteko.

Soldadutza egin behar zutenak bakarrik ez ziren mugitu gainera. Gehien inplikaturakoak eurak ziren, baina herriaren alde, babesa bazter guztietatik jasotzen zen: familia, lagunak, bikotea...

Elgoibarko Talde Antimilitarista sortu zen; eta ni batez ere, azken partean egon nintzen. Txosna jartzen genuen Elgoibarko San Bartolome Jaietan; eta urtero, orain dela gutxira arte Urte Zaharreko Ferian ta-

loak egiten genituen. Horrekin dirua jasotzen genuen urtean zehar egin behar genituen ekintzetarako: kartelak ipini, propagandarako materiala erosteko eta horrelako gauzak erosteko. Diru hori, hainbat epaiketetan laguntzeko ere erabili genuen.

Hogei urte beranduago, soldadutza ez da derrigorra, baina intsumiso etiketa eduki genuenoi zerbait geratzen zaigu. Garai hartan intsumisioa zenak gaur egun ere sentsibilitate berezi bat dauka meunduan ikusten diren gerrak eta bidegabekeriak ikusteko. Intsumiso horrek filosofia bat dauka atzetik, eta gaur egun Euskal Herrian bizi dugun hainbat egoeren aurrean ere uste dut pixka bat sentsibilizaturik gaudela; bide hori egokia izan zela sentitzen dut, eta intsumisioa ez dagoela modatik pasatuta.



**Aitor Lauzirika**

Pentsaerak, helburuak, talde lanak, sentimenduak eta ekintzak, Intentso-

ak, oso intentsoak izan ziren. Hasieran Durangoko Insumiso eta Objeto Taldean, gero 95ean (legearen aldaketa eta 2-4-1 kartzelaren mamua jarriko zigunaren urte berdinean) Elgoibarrera etorri nintzen bizitzera eta Elgoibarko Talde Antimilitaristako partaide egin nintzen.

Hainbat lan, ideia, eginkizun eta diru bilketa asmakizun egin genituen, baina gure arteko harremana eta hainbatek konpartitzen genuen sentimenduaren parte izatea da, emaitza eta gogoramen

modura gelditzen zaidana. Gure gizartearen desmilitarizazioa ez zela asmakizun bat eta insumisioa pauso bat besterik ez dela izan hori lortzeko, lan neketsu baten hasierako pausoa.

Baina lehen erronka lortu genuen 2001eko abenduan eta asko desinflatu egin ginen. Soldadutza aboliturik, lana egiteari utzi genion. Hamabi urte borrokan eta urteak aurrera, baina militarismoaren kontrako desobedientzia zibila bizirik dago, hori argi daukat.






**Dokumentuak konpultsatzeagatik kobratu egiten du Udalak:** “Dokumentu batzuk konpultsatzera joan nintzen udaletxera, eta orri bakoitza 80 zentimo kobratu zidaten. Hori ez da txarrena, ordea. Zortzi edo hamar orrialde konpultsau ondoren abisatu zidaten kobratu egiten zutela orriak konpultsatzeagatik, eta oraindik beste horrenbeste orri geratzen zitzaizkidan. Ordurako zortzi euro poltsikoratuta ziztuzten, eta lanaren erdia besterik ez genuen egin. Inguruko herrietan ez dute kobratzen, eta Elgoibarren 80 zentimo kobratzea gehiegizkoa iruditzen zait. Ulertuko nuke zeozer sinbolikoa kobratuko balute, bost edo hamar zentimo, adibidez, baina ez horrenbeste”.

ELGOIBARKO UDALTZAINGOA POLICIA MUNICIPAL DE ELGOIBAR				
Nº BOLETIN ZIGA	SALAKETA EGUNA ETA ORDUA / FECHA Y HORA DENUNCIA			
Nº 011943	Eguna / Día	Hala / Mes	Ordua / Aste	Ordua / Hora
	30	01	09	17:41
IBILGAILUA / VEHICULO		Motu / Clase		
[Redacted]		Turismo		
Marka / Marca	Eretoa / Modelo	Kantaria / Color		
Hyundai	Gete	Blanco		
ARAU-HAUSTEAREN TORIA / LUGAR DE LA INFRACCION				
P. Aguirre				
ARAU-HAUSTEA / INFRACCION				
Est. es zona azul carretera de Tidet				

**Udaltzainek gazteleraz jartzen dituzte isunak:** “Udaltzainek ere isuna merezi dute! Plaza Txikian aparkatu nuen, eta txartel-makina ez zebilen. Tikerik gabe utzi nuen autoa, eta jasotzera joan nintzanean isuna neukan. Papela hartu, eta dena gazteleraz idatzita zegoen. Nire haserrea bikoitzu egin zen, bate-tik, isunik ez nuelako merezi, eta bes-tetik, papel horia gazteleraz zegoelako. Oker ez banabil, Udalak euskara plana jarri zuen martxan orain dela urte batzuk, baina badirudi ahaztuta dutela. Udaltzainek isunak gazteleraz jar-tzea lotsagarria iruditzen zait”.

**Medikuaren txanda hartzeko denbora luzez egon behar da zain:** “Sendagilearekin egoteko beharra neukan, eta Osasun Zentrora deitu nuen. Haiseran astebete beranduagorako eman zidaten txanda, baina nire medikua zein zen esan nuenean, ezin zidatela zitarik eman esan zidaten. Nire medikua ez zegoen, eta ez zeukaten inor ordezkapenik egiteko. Azkenaldian mediku aldaketa asko egin dituzte Osasun Zentroan. Espero dut hoberako izatea, baina ematen ari diren zerbitzua ez da oso ona. Gaixo dagoenak ezin du astebete zain egon medikuarekin egoteko. Azkenean, denok larrialdietara joaten gara, eta larrialdi zerbitzuak gainezka egiten du. Nik ez daukat honen soluzioa, baina norbait aukeratu beharko luke”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkolizarra.com](mailto:barren@elgoibarkolizarra.com) 943-74 41 12

## I. URTEURRENA

# PEDRO MARI IRIONDO BERGARECHE

“Berasaluze”

*Zureganako maitasuna  
bizirik dago gure bihotzean.*



2008ko otsailaren 22an hil zen, 73 urte zituela. Haren oroimenz I. urteurreneko meza domekan, otsailak 22, izango da egurdiko 12:00etan Mendaroko Garagartzako elizan.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### OKERRAK ZUZENTZEN:

Joan zen asteko alean Nerea Arenas atera genuen kale inkestan, eta berak esandako hitzak gaizki interpretatu genituen. BARREnek "suerte pixkatekin, izan daiteke betirako, baina gaur egun ez da ohikoena bizi osoa pertsona berarekin pasatzea", argitaratu zuen, baina Nerea Arenasek ondorengo esan nahi zuen: "Ez dut betirako maitasunean sinisten, hau da, bizi osoan maiteminduta egotea n ez dut sinisten. Suertea eduki daiteke, eta bikote egokiarekin elkartu ezker, maitasun horrek luze iraun dezake, baina ez da ohikoena. Bikote batek hasieran daukan maitasuna eraldatu egiten da, eta errespetu, adiskidetasun, kariño... bilakatzen da. Azkenean bikotekidea beste modu batean maitatzen duzu". Barkatu eragozpenak.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Miriam Garcia

Orain dela hilabete batzuk umeen mundua ikusita zenbat gauza berriz ikasi ahal diren galdetzen genuen. Azken aste hauetan, bazkaldu ondoren,

Yuller nire gelan ezkutatzen zen egunero eta nik printze txikiaren liburua irakurtzen nion zatika. "Sabeltxoa hondarrez beterik duen suge bat", esan zidan dudarik gabe printze txikiaren marrazkia ikusi zuenean. "Ia ia! Elefante bat irensten ari den suge bat da!". Harrituta utzi ninduela onartu behar dut. Egia esan, ez nuen inoiz pentsatuko asmatuko zuenik (elefantearen xehetasun txikia guztiz ulergarria da, sugeak eta hondarra askotan ikusi ditu, baina inoiz ez du elefanterik ikusi), eta errudun sentitu nintzen sei urteko neska baten irudime naz ez fidatzeagatik.

### “Haurtzaroa eta zahartzaroa ondo begiratuta, gauza bera dira”

Horrela ulertu nuen: pertsona nagusiok jakintza asko ahaztu ditugu denboraren bidean. Baina gaur proposatzen dizudan gaia ez da haurtzaroa; zahartzaroa baizik, ondo begiratuta gauza bera diren arren.

Antzinako gizarte guztiek gizakiaren hazkunde eta garapena era ziklikoan ulertzen zutela uste dut. Hemen azaltzen duten arabera, pertsona bat ume jaio eta ume hiltzen da, aita izan ondoren indarrak galtzen direlako, eta azkenean semearen semea bihurtzen delako, hau da, bizitzaren zikloa amaitzeaz dagoenean, bere semea da pertsona hori zaintzen duena, bere haurra izango balitz bezala. "Nire semea nire aita da jadanik", diote Amazoniako komunitate indigenetan bizi diren agureek. Eta horrela ulertu nuen: beti presaka ari den gure gizarte garatu honek jakintza asko ahaztu dituela denboraren bidean.



Eva Garcia



Zahartzaroa kultura, garai eta zibilizazio guztietan ematen den gertakari unibertetsala da. Adinduak egon dira betidanik, baina antzinako gizarteek urte gehiago edukitzea esperientzia, adimena eta ezaguera handiagoaren seinale zela sinesten zuten.

Dena dela gure gizarteak, gaztaroa idolatratzen du eta zahartzaroari beldurra dio. Gaztaroari eutsi nahi diogu, kosta ahala kosta. Haurtzaroa eta zahartzaroa gauza berdina izan daitezke Amazonian, baina gure mundu honetan, behintzat, ez dira berdina baloratzen.

### “Haurtzaroa eta zahartzaroa gure mundu honetan ez dira berdina baloratzen”

Ondo zahartzea gizartearen oinarriko babes bat izan behar dela uste dut, eta horretarako erakundearen babesa edukitzea ondo dago. Baina gure gizarte merkantilistak irabazi, erosi, kontsumitu eta ekoiztu ahal dutenak nahiago ditu. Gure "bizitza osoaren" eredia gaztaroarekin, azkartasunarekin eta emankortasunarekin berdintzen du. Zahartzaroaren beldurrean oinarrituta dagoen industria handi bat ere sortu dugu: eder kirurgia, fitnessa, kosmetika... Batzutan, betirako gazte izatera behartzen gaituzte.


Baina azken finean, denok dakigu zahartuko garela, eta egunen batean, heriotzaren momentua helduko dela ere. Badakigu, bai, baina ezin dugu sinistu. Zahartzaroa zigor bat dela pentsatzea kezka garria da. Borroka hori galduta dugulako, jadanik.

Zahartzaroa bizitzaren zati bat dela ulertzeko gai ez gara. Hona hemen orain dela gutxi irakurritako berri bat: gure herrialdeetan "gaztetzen" ikasteko klaseak ematen dizkiete adinduei.

Galde iezaiozu Amazoniako komunitate indigenetako zahar bati zer pentsatzen duen horretaz!



Elgoibarko Udala



## Ermua eta Elgoibar arteko tranbia zerbitzua 2010. urtean jarriko da martxan

Hamabost minutuko maiztasunarekin egongo da trena

**E**rmua eta Elgoibar trenez 15 minutu-  
ro batuko dituen tranbia zerbitzua  
2010ean jarriko dela martxan, aurre-  
ratu du Nuria Lopez De Guereñu Eusko  
Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailbu-  
ruak. Elgoibar-Eibar-Ermua korridorean  
burutzen ari diren, edo datozen hilabeteo-  
tan burutuko diren proiektuei esker lortuko  
da Ermua eta Elgoibar arteko tranbia zer-  
bitzua martxan jartzea.

### Elgoibarren hiru proiektu

Bestalde, aurki burutuko diren lanen  
artean, Elgoibarko lurretan egingo diren hi-  
ru lan edo proiektu azpimarratu behar dira:  
Lehenengoa, Karakateko bide-gurutzake-  
ta izango da, eta 2,4 milioi euro euroko  
kostua izango du. Karakateko bazterbide  
berria funtsezko pausoa izango da gaur  
egun Ermua eta Eibar artean eskaintzen  
den tranbia zerbitzua Elgoibarreraino luza-  
tu ahal izateko.

Bigarren proiektua, Elgoibarko Tolet-  
xegain geltokiaren egokitzapena izan-  
go da, eta 700.000 euroko kostua izan-  
go du. Azkenik, Altzolako saihsabidea



egingo dute. Toletxegainetik Altzolako  
geltokiraino dagoen trenbide zatian  
saihsabidea bat eraiki ahal izateko  
proiektu bat egitea agindu du Eusko  
Trenbide Sareak. Gaur egungo ibilbidea  
500 metrotan murriztea eta trenak gu-  
rutzatu ahal izateko trenbidea bikoiztea  
dira saihsabidea egiteko arrazoi nagu-  
siak. Abantailak, berriz, bidaiari eta  
merkantzien trenen maiztasuna area-

gotzea. Azkenik, irisgarritasun araudira  
egokituz, Altzolako geltokia berritze-  
ko asmoa azaldu dute Jaurlaritzako ardu-  
radunek.

Azpiegitura eta ekipamendu horiek  
eraikitzean hobetu ahal izango dira,  
Garraio eta Herri Lan Sailburuak aurre-  
ratu zuenez, trenen trafikoaren maizta-  
sunak eta hiritarrei orokorrean ematen  
zaien zerbitzua.

## Plasma telebista eta 750 euro ostu dituzte La Perla tabernan



Astelehenetik martitzenera-  
ko gauean La Perla tabernan  
egin zuten lapurretan. Telebista  
eta 750 euro inguru eraman zi-  
tuzten lapurrek. Eraikinean berri-  
kuntza lanak egiten ari dira, eta  
bertan dagoen andamiaoa apro-  
betxatu zuten lapurrek, leihotik  
barrura sartzeko. Pertsiana igo,  
leihoko bisagrak kendu eta ino-  
lako arazorik gabe sartu ziren.  
Arduradunen esanetan, taberna  
ondo ezagutzen zuten lapurrek.  
Azitain inguruan atxilotu zituen  
ertzantzak ustezko bi lapurrak  
eta epaiketaren zain daude.



## Lekua **San Pedro auzoko espaloia**



San Pedro kaleko etxebizitzetarako igobidea eta espaloia eraikitzeko lanak amaitu dituzte. Injelan enpresa arduratu da lanetaz eta Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamenduaren esku egon da finantzazioa. 236.570 euroko kostua izan du. Hiri eremu kaltetuak berreskuratzeko, biziberritzeko eta irisgarritasun irizpide berrietara moldatzeko sustatze lanen barruan egin ditu hobekuntza lanok Foru Aldundiak. Espaloiak 78 metroko luzera eta bi metroko zabalera ditu.

## Zenbakia **822.000**

Udalak 822.000 euro bueltatu beharko dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Izan ere, 2008ko kontuak likidatzean, Foru Fondoaren likidazioa negatiboa atera da, hau da, aurrekontua baino %12 bajuagoa. Foru Aldundiak hasieran aurreikusi zuena baino 300.000 euro gehiago itzuli behar ditu Udalak. Hala ere, Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, espero zuten, eta horrek ez du herritarrengan eragingo: "krisiak Udal kontuetan eragina izan du, baina Elgoibarko Udalak ez ditu herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak murriztuko". Bi urteko epean bueltatuko dute dirua, interesik gabe.

## Irudia **Sallobente ingurua**

Debabarrenako txokorik gustukoenak zein diren jasotzeko asmoarekin lehiaketa antolatu du Debegesak, [www.ongietorri.org](http://www.ongietorri.org) turismo-blogaren bitartez. Iada 20 ekarpen baino gehiago jaso dituzte, eta txokorik hautatuenean artean, Elgoibarko Sallobente-Ermuaren bailarako txoko eta bazterrak daude. Argazkiak [komunikazioa@debegesa.com](mailto:komunikazioa@debegesa.com) helbidea bidali daitezke, otsailaren 28ra arte.



## **Gazte batek labankada bat jaso zuen zapatuan**

Bi gazte taldek, Elgoibarkoak batzuk eta kanpokoak besteak, borrokan egin zuten, zapatu iluntzean, San Frantzisko kalean. Borrokan ari zirela, gazte batek labankada bat jaso zuen belaunean eta beste bati botila bat txikitu zioten buruan. Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, ez da oraindik inolako salaketa jarri borrokaren ondorioz, eta hortaz, ezin dezakete gertatutakoaz argitasun gehiago eman.

## **Txinatarrean lapurretan egiteagatik kartzelara**

2008ko martxoaren 28an San Frantzisko kalean zegoen txinatarren arropa dendan lapurreta egiteagatik atxilotu zituzten bi gazteei zazpi urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri diete. Aurpegia estalita baina egun argiz sartu ziren lapurrak txinatarren dendara. Urdaiaz-pikoa mozteko labana batekin dendaria mehatxatu eta aulki batera lotu zuten, ahoa zinta itsaskor batekin estaliz. Ondoren, ordenagailu eramangarri bat eta 120 euro ostu zituzten kutxa erregistratzailetik.

## **Trenbidearen ikerketa kritikatu du PP alderdiak**

Udalak eta Euskotrenek egingo duten trenbide-ikerketa kritikatu du Javier Nuñez, PP alderdiko zinegotziak. Bere esanetan, elgoibartarrek ez dute ordaindu behar beste erakunde baten "betebeharra" dena. Bere ustez, trenbideak Elgoibarren daukan trazatuaren ikerketa Euskotrenek ordaindu beharko luke osotasunean. 203.000 euro dirutza handia dela azaldu du, eta erdibana ordaintzea ez du ondo ikusten alderdi popularreko zinegotziak. "Krisi garaian gaude, eta orain, inoiz baino garrantzitsuagoa da dirua herritarren beharretarako erabiltzea", azaldu du Javier Nuñezek.

## Gaur hasiko dira inauteriak Sinuoseran irrati librearekin

Martitzenera arte mozorroa soinean edukitzeko aukera egongo da



Atxutxiamaikak antolatuta, karaokea eta mozorroen desfilea izango dira zapatuan.

**K**onturatu ordurako, iritsi dira aurtengo inauteriak ere. Batzuk aspalditik edukiko dute aurtengo mozorroa prestatuta, eta beste batzuk, gaur gauean eta bihar goizean eman beharko dizkiete mozorroei azken ukituak. Mozorrotzeko eguna bihar arte iritsiko ez bada ere, gaur hasiko da inauterietako egitaraua. Sinuose Elgoibarko musika kolektiboak irrati librea egingo du 22:30etik aurrera Kultur Etxeko sotoan.

Ikastolako haurrek ere Euskal Inauteria egingo dute gaur. 15:15etik 16:30era kalejira eta dantza saioa egingo dute Plaza Handian. Bihar, 17:00etan hasiko dira eguneko ekintzak: Atxutxi-karaokea egingo dute Plaza Handian, eta 18:00etan txokolate jana, izango dira besteak beste.

**Egitarau osoa, BARRENe**ko agendan dago.

**H**amahiru urte daramatza Sinuose Elgoibarko musika kolektiboak inauterietako kontzertua antolatzen. Patxi Zabaleta eta Iban Urizarren ekimena da, eta aurtengatik *Gauaren Zuloan* irrati librea egingo dute 22:30etik aurrera Kultur Etxeko sotoan.

“Elgoibarren eta elgoibartarrentzat sortutako ekimen artistiko honek beste urte batez erakutsiko du musika mozorrotu egin daitekeela, iruzur egin gabe”, azaldu dute taldeko kideek.

Zazpiki Irratian aritu ziren gaztetan Zabaleta eta Urizar, eta irrati libreen mundua hartu dute hizpide aurtengatik. “Omenaldi txiki bat egin nahi izan dio Zazpiki Irratiari”.

Irrati programa bat egingo dute zuzenean: aurkezpenak, iragarkiak, eta baita musika bera ere. Musika talde ezberdinak aurkeztuko dituzte, eta talde horien musika izango litzatekeena jo ere bai. Beste berezitasun bat ere edukiko du irratsaioak: izan ere, entzun nahi duenak ezin izango du irrati bidez sintonizatu, zuzenean entzun beharko du sotora joanda.

### Herritarrei gonbitea

“Gonbitea luzatzen diegu herritarrei, Elgoibarren bakarrik ikusi eta entzun daitekeen ekitaldi ezohikoaz gozatzera etortzeko”, adierazi dute Sinuose taldeko kideek.



**Bidali zure inauterietako erretratuak  
eta BARRENe argitaratuko ditugu!!!**

**[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)**





## Elgoibarren ere hasi da Hauteskunde Autonomikoetarako kanpaina politikoa

Aralar, EA eta D3M alderdiak izan dira lehenengoak

**M**artxoaren 1ean izango dira Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak, eta dagoeneko kanpaina politikoa martxan da. Alderdiak hasi dira motorrak berotzen, eta Elgoibarrera ere iritsi dira. Otsailaren 28ra arte, han eta hemen ibiliko dira, botu emaile bila. Joan zen astean Aralar, Demokrazia 3 milioi eta Eusko Alkartasuna alderdien ekitaldiak izan ziren.



Aralarreko alderdikideak otsailaren 11n etorri ziren Elgoibarrera. Izaskun Soraluze Aralarreko zinegotziarekin eta alderdiko beste hainbat kiderekin, Gipuzkoako hautagai eta batzarkide Rebeka Ubera izan zen Kultur Etxean, herriko arazo garrantzitsuenak hurbiletik ezagutzeko asmoz. Bere esanetan, kezkarik nagusiena osasun arloan aurkitu du, Osasun Zentroan eta Mendaroko Ospitalean dauden itxaron zerrenda luzeak, batez ere. Merkatua, etxebizitza, krisia, lana eta beste hainbat gairi buruz ere egin zuten berba Aralarreko kideek, eta horri irtenbidea eman behar zaiola adierazi zuten.



Elgoibarko Demokrazia 3 milioi taldeak kontzentrazioa egin zuen zapatuan, hilak 14, Plaza Handian, "Salbuespen egoerari stop! Demokrazia 3 milioi", lemapean. Alderdia legez kanpo laga du Espainiako Gobernuak, eta horren kontrako saraketa egin zuten.

Euren esanetan, Espainiar Gobernuak, Fiskaltza, Estatuaren Abokatua, Auzitegi Nazionala, Tribunal Gorena, eta Tribunal Konstituzionalarekin batera, hauteskundeak aldatuko ditu bere interesetara. Beraz, hauteskunde hauek, zein hortik aterako den Parlamentua, ez dira demokratikoak izango. Dena dela, oztopo guztien gainetik, D3M alderdia martxoaren 1eko hauteskundeetan presente egongo dela aldarrikatu zuten.



Jeus Mari Larrazabal, EA alderdiko Gipuzkoako zerrendaburuak zapatu arratsaldetan eskaini zuen hitzaldia Kultur Etxean. Besteak beste, Eusko Alkartasunari botua emateko arrazoiak aipatu zituen. Bere ustez, EA-ri botua ematea erabakiorra izango da Legebiltzarraren osaketarako, eta azaldu zuenez, EAJ eta PSE-EEK paktua egiten badute, EA oposizio gogorra izango da legealdi guztian zehar. Bestalde, krisi ekonomikoaren kontrako neurriak hartu behar direla, balore sozial eta politikoak berreskuratu behar direla eta giza eskubideak oinarri hartuta, normalizazio politikorako bidea hartu behar dela adierazi zuen.

## Gure berbak

### Aditz trinkuak: JAKIÑ aditza (2)

JAKIÑ aditzaren iraganaldiko formak jasoko ditugu gaurko zutabian. Orañaldixaren kasuan bezela, objektua singularrekuia izan, pluralekuia izan, desberdiñak dira formak. Hona, lehendabizi, singularrekuak:

- ♦ Neutrua: *nakixan, zakixan, genkixan, zenkixan, zenkixen, zakixen.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *najakixan, hakixan, jakixan, genkixan, jakixen.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *najakiñan, hakixan, jakixan, genkiñan, jakixen.*

Objetua pluralekuia darian (*gauza bakarren ordeaz, gauza bat baiño gehiago jakiñ*), -Z pluralgillia erabiltzen da, baiña haren ostian iraganaldiko morfema jartzen da (-EN):

- ♦ Neutrua: *nakixazen, zakixazen, genkixazen, zenkixazen, zenkixezen, zakixen.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *najakixazen, hakixazen, jakixazen, genkixazen, jakixezen.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *najakiñazen, hakiñazen, jakixazen, genkiñazen, jakixezen.*

Egixa da forma batzuk bitxi samarrak gertatu leixola zenbaitti; izan ere, ez dira forma guztiak berdin erabiltzen, kantitatez behintzat.

Horretaz gain, txandakatzeren batzuk ere gertatu leikez: adibidez, nahiko arrunta da -EN/-AN:

- *Gerrara jua, eta bi urtian ez genkixan ezer gizonan gaiñan.*
- *Gerrara jua, eta bi urtian ez genkixen ezer gizonan gaiñan.*

- JAKIÑ-en adibide batzuk, amaitzeko:
- *Bajakixen harek gaizki eitten ari zirala, eta, badaezpada, ixildu.*
- *Gauza asko jakixazen gure txikitako maixuak, eta guk kasorik ere ez!*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1983

Inauteri giroa nabari den egunotan, inauterietako erretratu zahar bat ekarri dugu atal honetara. 1983ko inauterietan ateratako argazkia da. Lagun talde honek bazeukan garai hartan ere mozorrotzeko ohitura, eta batzuk gainera, gaur egun ere oraindik eusten diote ohitura horri. Errosario kalean aterata dago argazkia, Gorostiza liburudenda zenaren aurrean. Ikus ditzagun argazkian azaltzen direnak nortzuk diren:

**Zutik, ezkerretik eskumara:** Juan Barrenetxea, Mari Tere Arakistain, Alfonso Guilló, Pako Sierra, Jose Inazio Izagirre, Mari Jose Estibaritz, Jose Luis Soraluze (†).

**Makurtuta:** Amaia Escudero, Victoria Rubio, Itziar Juaristi, Izaskun Estibaritz eta Andres Alberdi.



### I. URTEURRENA

## FELISA GARATE BADIOLA

*Vicente Abasoloren alarguna*



2008ko otsailaren 19an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 21, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.





Asteburuan hasi eta otsailaren 24ra bitartean ospatuko dira inauteriak.

## Prestatu duzu inauterietarako mozorroa?



**Miguel Montes**  
12 urte, ikaslea

Bai, aurten rapero jantzita irten-go gara lagunak. Erraza izan da mozorroa prestatzea, ez digu lan handirik eman. Iaz tenista jantzi ginen, gona motzekin eta oso ondo pasatu genuen. Batzutan karaoketan eta mozorro desfilean ere hartzen dugu parte.



**Ana Isabel Marin**  
34 urte, dependienta

Bai, prest daukat. Izar jantzita aterako gara koadrilan. Jostuna naiz, eta mozorroa ondo prestatzea gustatzen zait. Nirea eta lagunena egin dut! Eibarko inauterietan ere ibiliko naiz, eta martitzenean umearekin lora jantzita irten-go naiz. Izugarri gustatzen zaizkit inauteriak.



**Nahia Merino**  
27 urte, saltzailea

Bai, eta sekulako ilusioa daukat. Zapatuan pirata mozorrotuko naiz tabernan, eta martitzenean Amy Winehouse bezala aterako naiz. Udako festekin batera, inauteriak dira niretzat urteko jairik onenak. Tolosako inauterietara ere joan izan naiz, baina aurten ez naiz joango.



**Fco. Javier Beato**  
25 urte, langabetua

Ez, aurten ez naiz mozorrotuko. Lanik gabe geratu naiz, eta ez daukat dirurik parrandan ibiltzeko, gastuak murriztu egin behar dira. Bes-tela urtero mozorrotu izan naiz, eta gustatzen zaizkit inauteriak. Drag Queen, emagald... denetarik jantzi izan dut.

**klinika kortazar**  
Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Te. 943 700 700 / 943 203 835

Jose Angel Zabala

**MAHASTI**

Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

**URKIDI**  
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi  
Josefina Fernandez

Liberty  
Aseguruak

Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12

## Maila ona erakutsi dute Beasainen Elgoibarko dantzariak

Herriko hamar dantzarik hartu dute parte txapelketan



**B**easaingo Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu dute joan den asteburuan. Bertan Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako hamar ikaslek parte hartu dute. Zapatuan, hilak 14, arratsaldeko 16:30etan, A saileko (7-11 urte) neska mutilek parte hartu zuten Beasaingo Usurbe antzokian. Sail honetan lau neska elgoibartarrek parte hartu zuten eta emaitza onena Alaitz Egañak lortu zuen, bosgarren postuarekin.

Domekan, hilaren 15ean, goizeko 11:00etan lehiatu ziren B sailekoak (11-15 urte). Elgoibarko mutil batek eta bost neskak parte hartu zuten, eta oso maila ona erakutsi zuten.

Mutilen sailean 11 mutil aritu ziren eta Aitor Asenjok bigarren postua lortu zuen.

Nesken sailean, ostera, 22 aritu ziren, eta Arantxa Ferreirok lehen postua lortu zuen eta Itziar Aldalurrek hirugarrena.

### Arte eta literatura tailerrak antolatu ditu Haizeak

Haizea emakume taldeak bi tailer antolatu ditu: arte tailerra bata, eta literaturarena bigarrena. Astelehenean, hilaren 23an izango da lehena. Martin Lutero gai hartuta, 17:00etatik 19:00etara jardungo dute Kultur Etxko hitzaldi gelan.

Literatura tailerra martxoaren 3an, martitzenean, egingo dute. Jose Saramago idazlearen *La muerte de Ricardo Reis* izango dute hizpide, 18:00etatik 20:00etara, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Talde instrumentalaren kontzertua, gaur, 19:30ean

Gaur, otsailak 20, Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako talde instrumentalaren kontzertua egingo dute arratsaldeko 19:30ean hasita, musika eskolako auditorioan.

Aurten 25 urte bete ditu Elgoibarko musika eskolak, eta ospatzeko hainbat ekintza egingo dituzte urtean zehar. Horietako bat da gaur musikariek eskainiko duten emanaldia.

## Euskara Elkarten Federazioa eta Kultur Errota babesteko lankidetzaren hitzarmena bertan behera laga du Gipuzkoako Foru Aldundiak



Gipuzkoako Foru Aldundiak Topagunea Euskara Elkarten Federazioa eta Kultur Errota babesteko lankidetzaren hitzarmena bertan behera utzi du. Kultur Errota euskarazko kultur sorkuntza herritarrei hurbiltzeko bokazioz sortu zen, eta formatu txikiko kultur eskaintzaren erreferente ukazina bihurtu da hainbat herritan, Topaguneko kideen ustez. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakiarekin, Kultur Errotaren baliagarritasuna zalantzan jartzearekin bat, Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren sustapen lana ere ezbaian jarri dela adierazi zuten. Egoera hori salatzeko prentsaurrekoa eskaini zuten Euskara elkarteek Donostiako Doka Kafe Antzokian.



# Urrea, zilarra edo brontzea lepotik zintzilik dutela bueltatu dira Elgoibarko piano-jotzaileak Andoaingo jaialditik

Bastero Kulturgunean 921 ikaslek jo dute pianoa, tartean, Elgoibarko 42 pianistak

**J**oan den asteburuan Andoaingo piano jaialdia egin zuten, eta Elgoibarko 42 ikaslek parte hartu zuten. Zapatuan eta domekan, Bastero Kulturguneko aretoan 5.000 pertsona inguru egon dira: 921 ikasle eta horien guraso eta lagunak. Musikari gazteak, gainera, ez dira esku hutsik buelattu etxera: lepotik zintzilik domina bana ekarri dute.

## Elgoibarko ikasleak gehienak

Euskadi osoko ikasleek hartu dute parte aurtengo jaialdian, eta ikasle gehien bidali dituen herria Elgoibar izan da. Jaialdian parte hartzeko entsegu asko egin behar izan dituzte pianistek, eta urritik hona ibili dira obrak prestatzen.

Zapatuan eta domekan, 09:30etik 20:00etara aritu dira pianoa jotzen musikari gazteak. Parte hartzaileek, egin-



dako lanaren trukean dominak eskuratu dituzte: urrea ondo-ondo jo dutenentzat, eta zilarra eta brontzea maila apa-

lagoa erakutsi dutenentzat. Baina, azken batean, lepotik zintzilikatzeko saria parte-hartzaile guztientzat.

## Soto bete jende domeka arratsaldean, musika onaz gozatzen



Domeka arratsaldean Kultur Etxeko Sotoan bi kontzertuz gozatzeko aukera egon zen. 19:30ean hasita, Japoniatik etorritako *Tayuta* taldea eta Elgoibar eta Eibarko bikoteak osatutako *Napoka* Iria taldeak aritu ziren bertan. Musikariek eurek ere espero ez zuten arren, sotoa bete egin zen.

Domeka arratsalde lasaia iragartzen zuten, sotoa ematen duten eskaileratan jarrita zeuden kandlek. Japoniako taldea izan zen taularatzen lehena. Sotoan batutako jende gehiena lurtean eserita zegoen arren, altxatzeko eskatu ziren abeslariak eta emanaldia hasi zen. Taldeko hiru kideek japoniarrez abestu arren, entzuleekin konektatzen asmatu zuten.

Napoka Iriaren txanda etorri zen gero. Ander Mujika elgoibartarrak eta Miren Narbaiza eibartarrak musika lasaia egiten dute, eta berriro ere lurtean esertzeko aukera edukitu zuten entzuleek.

## Anbolo saskibaloia taldea: Neska koadrila baten ilusio eta lanaren emaitza

Lau partida irabazi eta zazpi galdu dituzte denboraldia hasi zenetik

**E**skolarteko kirola amaitu ondoren, saskibaloian jokatzeko gogoaz zeukan neska koadrila baten ilusiotik sortu zen Anbolo taldea. Deialdia egin, entrenatzaileak bilatu, eta saskibaloia denboraldiari ekin diote. Juan Molina eta Asier Murua dira taldeko entrenatzaileak.

### Hasiera zaila

“Eskubaloia aukeratu izan balute, errazagoa izango zen dena”, adierazi dugu Juan Molinak. Entrenatzaile, guraso eta arbitro lanak egitea ere tokatu zaio Molinari. Infantil kategorian ez zegoen saskibaloia talderik Elgoibarren, eta zerotik hasi behar izan zuten. Nagusien mailan *Gabi Jatetxea* taldeak jokatzen du, eta horri esker, saskibaloia kluba sortuta zegoen. Molinak berarekin lan egiten duen Asier Muruarekin berba egin zuen, eta lanean hasi ziren. Murua *Gabi Jatetxea* saskibaloia taldeko jokalaria ere bada, eta gustura dihardu neska taldearekin lanean. Asteaz bi entrenamendu saio egiten dituzte, eta asteburuan iza-



ten dituzte partidak. Gipuzkoako taldeen kontra jokatzea salto handia izan zela aitortu dute: “herriko ikastetxeen kontra jokatuz, probintziako taldeen kontra aritzera alde handia dago. Hasieran oso

urduri joaten ziren neskak”. Hala ere, jokalariek daukaten ilusioari esker, partidetan emaitza onak lortzen ari direla azaldu dute entrenatzaileek: “gu baino askoz hobeak diren taldeen kontra ere ez dira atzean geratzen; gogoia eta ilusio handia jartzen dute partidetan, eta horretan txapelak dira”. Denboraldia hasi zenetik, lau partida irabazi eta zazpi galdu dituzte, “baina galdutakoak ere oso alde gutxiarekin galdu ditugu”, esan du Asier Muruak. Hamabi urteko neskek dra, gazteak, eta asko daukate oraindik ikasteko. “Estreinako denboraldia da aurtengoa, eta garrantzitsuena aurrera jarraitzea da”.

### Anboloren omenez

Txapelketan izena emateko unea iritsi zenean, oraindik ez zeukan taldeak izenik. Ego Toki elkarteko Anbolo lora hil berri zen, eta haren omenez jarri zioten izena taldeari. “Asko gustatu zitzaigun izena, eta Anbolori omenaldi txiki bat egiteko modua da”, azaldu dute jokalariek.





# Iñaki Sagarna Euskadiko kros txapelduna da infantilen mailan

Nesken taldeak lehen postua eskuratu du infantiletan

Joan den domekan, hilaren 15ean, Eskolen arteko kirol jokoen Euskadiko txapelketa jokatu zuten Gamaran, Gasteizen. Mintxeta atletismo taldeko bi taldek hartu zuten parte infantil mailan: neskena bat eta mutilena bestea, eta emaitza onak lortu dituzte elgoibartarrek.

Nesken taldean Lorea Santiagok lortu zuen postua onena: zazpigarrena. Eta nesken taldea lehen postua lortuta, Euskadiko kros txapelkun bilakatu da. Mutilei dago-kenez, Iñaki Sagarna elgoibartarrek lehen postua lortu zuen sailkapen orokorrean, eta talde bezala, bosgarren sailkatu ziren.

Martxoaren 1ean Jaenen jokatu duen Estatuko txapeketan hartuko du parte Sagarnak.



## Santutegien ibilbidea antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendi elkarteak santutegien ibilbidea antolatu zuen urtarrilean, baina eguraldi txarragatik bertan behera geratu zenez, martxoaren 7an egingo dute irteera. Loiolako santutegian hasi eta Antiguakora arteko bidea egingo dute; guztira sei orduko bidea. Irteera ordua 8:00etan da. Izena emateko egunak astelehena eta eguena dira, 19:00etatik 20:30era, Morkaikoren lokalean.

## Lapurreta aldageletan eta txartel gorria Eli Ibarri



Futbol ibilbide luzeko estreinako txartel gorria jasotzea ez da une gozoa izan behar, baina atsedenaldira aldageletara joan eta lapurrek sakelako telefonoa, dirua, bitxiak, nortasun agiria eta gidabaimena lapurtu dizkizutela ohartzea, are gutxiago. Horixe gertatu zitzaion asteburuan Eli Ibarri, Athletic-eko kapitainari, Zaragozan.

Besteak beste, zortzi sakelako telefono, lau erloju, bi eskumuturreko, zenbait eraztun, lau MP4, iPod bat, nortasun agiri batzuk, gidabaimen bat eta 400 euro bota dituzte faltan.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

San Ignacio 2 – Elgoibar 4 (Haundi)  
Antzuola 5 – Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Ostadar 1 – Elgoibar 1 (Jub.)  
Ostadar 1 – Elgoibar 2 (Kad.)  
Elgoibar 0 – Ekintza 2 (Inf.)  
Elgoibar 2 – Lengokoak 0 (Txik.)  
Elgoibar 2 – Amaiak Bat 2 (Neskak)

### ESKU PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

Usurbil (3) 22 – Lagunak 9 (1. mail. nag.)  
Lagunak (1) 22 – Oskarbi 19 (1. mail. nag.)  
Lagunak 22 – Zumaia 8 (2. mail. nag.)  
Lizardi Igeldo 22 – Lagunak 1 (2. mail. jub.)  
Lagunak (2) 22 – Lapke 4 (Inf.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 11 – Sasikoa 5 (Nazional B)

### ESKUBALOAIA

Tecnifuelle Elg. 22 – Askartza 18 (Sen. nesk.)  
IMH Elg. 43 – Consulting S.A. 20 (Kad. nesk.)  
Bergara 37 – Pneumax Elg. 26 (Kad. mut.)  
Egia 25 – Ikus Elg. 23 (Kad. nesk.)  
Ereintza 20 – Astigarraga Elg. 15 (Inf. nsk.)  
Udarregi 18 – Aterpe Elg. 27 (Inf. nesk.)  
Aiala 29 – Lili Elg. 22 (Inf. nesk.)  
Bankoa Elg. 21 – Txingudi 18 (Inf. mut.)  
Txarriduna Elg. 18 – Tolosa 18 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 8

11:30 Elgoibar – Lengokoak (Kad.)  
16:30 Elgoibar – Arenas Club (Haundi)  
18:30 Haundi – Mondragon (1. erreg.)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

#### Barxakua, 20

20:00 Tecnifuelle Elg. – Urdaibai (Sen.nesk.)

#### Zapatua, 21

11:30 Lili Elg. – Pulpo (Inf.nesk.)

## Umeentzako igeriketa ikastaroa emango dute

Elgoibarko Udak Kirol Patronatuak lau eta sei urte bitarteko umeentzako igeriketa ikastaroa antolatu du. Martitzenean, hilaren 24an, hasiko da, eta gaur da izena emateko azken eguna. Martitzen eta eguenean izango dira klaseak: 17:00etatik 17:30era edo 18:30etik 19:00etara.

## LANA

### ESKAERA

- Neska gaztea lanerako eskaintzen da, arratsaldez edozein lan egiteko ( etxeko lanak, garbiketak,...).
- ☎ **671 277 662**
- Emakume euskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.
- ☎ **696 459 889**
- Emakumea, garbiketa lanak, zerbitzari lanak edo haurrak zaintzeko prest. Ordu-tegi desberdinetara egokitzeko aukera.
- ☎ **638 344 377**
- Emakumea, interna edo orduka lan egiteko prest. (Gauetz ere lan egingo luke nagusiak zaintzen).
- ☎ **699 813 826**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.
- ☎ **671 476 869**
- Emakumea lanerako prest, sukaldari laguntzaile lanetarako, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko.
- ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakumea lanerako prest, nagusiak zaintzen, garbiketari edo edozein lanetan.
- ☎ **696 246 962**
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanetan edo haurrak eta nagusiak zaintzen.
- ☎ **669 064 252**
- Mutila lanerako prest, edozein lanetan. Egun guztian zehar.
- ☎ **660 193 999**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. 9etatik 16etara. Papelak ditu.
- ☎ **665 414 801**
- Emakume bat nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketari lanak egiteko prest.
- ☎ **618 163 061**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Interna egongo litzateke.
- ☎ **679 673 622**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketari lanetarako prest. Orduka edo lanaldi osoa.
- ☎ **636 120 425**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Asteazken zehar edo asteburuetan.
- ☎ **680 808 125**

- Neska gaztea, umeak edo agureak zaintzeko prest (esperientzia).
- ☎ **686 420 642**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.
- ☎ **639 020 180**
- Emakumea garbiketari lanak egiteko prest.
- ☎ **616 233 996**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak eta harrerako lanak egiteko prest.
- ☎ **662 261 575**
- Emakumea edozein lan egiteko prest, garbiketari lanak, umezaintzaile...
- ☎ **616 690 415 (Marta)**
- Mutil gaztea sukaldari laguntzaile edo zerbitzari bezala lan egiteko prest.
- ☎ **616 690 415**
- Emakumea lanerako prest. Arratsaldeetan etxeko lanak egiteko prest.
- ☎ **943 74 32 51**

### ESKAITZA

- Batxilerr 2. mailako gaztelera klaseak hartuko nituzke
- ☎ **943 584 035**
- Emakumeak behar dira bitxiak, moda eta osagaiak saltzeko. Zuzeneko salmenta da.
- ☎ **685 787 232**
- Ileapaintzaile bat behar da, ahal bada esperientziaduna.
- ☎ **943 741 492**
- Aste Santutik irailera arte 1mh museoa jai-egunetan lan egiteko pertsona behar da. Museoa zabalik 09:00tik 14:00etara egongo da. Hilean 300 euro.
- ☎ **943 748 456**

### ETXEBIZITZA

#### ALOKAIRUA

- Neska gaztea, logela baten bila Elgoibarren.
- ☎ **943 743 505**
- Alokagari dagoen etxe baten bila nabil.
- ☎ **695 708 820**

#### SALGAI

- Etxea salgai, 60m<sup>2</sup> ditu eta guztiz beriztatutur dago. 38 milioi/ 228.000 euro.
- ☎ **635 700 778**

## LOKALAK

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia ☎ **943 741 436**
- Garajea salgai edo ALOKAGAI. (Urasandi behean, mahala parean), 23 m<sup>2</sup> ditu. Bi kotxerentzako toki, bigarren solairuan tente egoteko altuera dauka.
- ☎ **637 946 954**

## MOTORRA

- PEUGEOT 405 GRI salgai, 5 ate, oso ondo zaituta, kilometro gutxi ditu, gasolina, prezio oso onean. ITV irailan pasata.
- ☎ **686 879 996**

## BESTELAKOAK

- Gizonezkoentzako mexikano mozorro-jantzi osoa saltzen dut. Prezioa: 25 euro. ☎ **943 740 079**
- Lur sail bat saltzen da Azkaratetik Azkoitiara bidean, 2 hektarea dituena.
- ☎ **671 977 171**
- 1GBetik 667 Mhz&DR2 SDRAMerako 2 memoria RAM saltzen ditut. Prezioa: 55 euro.
- ☎ **649 508 975 / 636 330 464**
- Pastor aleman eta Mastin arteko txakurrak oparitzen ditut. 2 hilabete. ☎ **653 474 850 (Alex)**
- Mahaigaineko ordenagailua HPE6300 PAVILION INTEL 1024 250GB MEDIA CENER, Sony tft 17"-ko monitorrea eta HP PSC 1510 multifuntzio inpresora salgai.
- ☎ **686 879 996**
- Urrezko belarritako bat aurkitu dute San Bartolome kalean. ☎ **943 531 648**
- Bi solarium salgai ( bat zutikakoa eta bestea etzandakoa). Egoera onean eta prezio interesgarria.
- ☎ **653 701 647**
- Kotxeko giltzak aurkitu dira Mendaron, arroateko ura askan ondoan.
- ☎ **688 649 596**
- Etxeko altzariak, elektrogailuak, erropak ( Izarak, mantak, ohe arropak, ...) eta gortinak behar dira.
- ☎ **676 444 171**

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero [barren.iragarkilaburak.com](http://barren.iragarkilaburak.com) atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**






• Zorionak, **Joseba** atzo hiru urte handi bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta batez ere Eleneren partez.



• Zorionak, **Pau**, hilaren 18an bost urte egin zenituelako. Gurasoen eta Unairen partez.



• Zorionak etxeko **pampinari**, bi urteko egingo dituelako. Patxo handi bat gurasoen, amama Lurdes eta Manuel aitxixaren partez.



• Zorionak, **Kalet**, 22an urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat familiaren, bereziki gurasoen partez! Askoi maite zaitugu, bitxito!



• Zorionak, **printzesa**, igandean, hilaren 22an, zazpi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **poxpolin**, aita, ama eta bereziki lkerren partez! Bederatzi muxu zuretzako! Muaka!



• Zorionak, **Goiatz**, igandean sei urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Udane eta Eleneren partez.



• Irtsi da hamargarrena! Zorionak eta ondo-ondo pasau astelehenian, **Ainhitzel**



• Zorionak, **Iraia**, asteazkenean urte bat egin zenuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Eneko**, hilaren 10ean bi urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Joneren partez.



• Zorionak, **Iban** Urtrillaren 6an jaio zinelako. Etxekoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Ixone**, bi urte egin dituzulako. Etxekoen, aiton-amonen, izeba Martaren eta anaia Aimirren partez.



• Zorionak, **Aiora**, hilaren 25ean bi urte egingo dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, lhintzaren partez.



• Zorionak, **Irigo**, zazpi urte egin zenituelako. Muxu bat etxekoen eta bereziki, Julenen partez. Ondo pasatu, txapeldun!



• Zorionak, **Asier eta Sarai** Bi muxu potolo, familiakoen partez.



• Zorionak, **Nora eta Malen**, lau urte eta urtebete egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Leireren partez.




• Zorionak, izeba **Claudia**, zure 91. urtebetetzean. Muxu asko familiakoen partez.

## Ospakizunak: Sallobentekoak sagardotegian



Aurten ere Sallobentetarrak ohitura mantentzeko asmoz sagardotegi irteera egin dute. Aurten Alorrenea sagardotegira joan dira eta eguraldiak lagunduta, egun ederra pasatu zuten txotx eginez.



## OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

**OKINDEGIA**

22 domeka **FOTERO**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 20 Garitaonandia
- 21 Etxeberría (Santa Ana)
- 22 Etxeberría (Santa Ana)
- 23 Fernandez
- 24 Yudego
- 25 Zabaleta
- 26 Etxeberría (Errosario)
- 27 Ibañez

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik

[www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



**20 barixakua**

*Musika*

**19:30** Musika Eskolako en-  
kontzertua  
Inazio Bereziartua Musika eta  
Dantza eskolako talde  
instrumentalaren kontzertua.  
Musika Eskolako auditorioan.

**23 astelehena**

*Artea*

**17:00** Arte tailerra  
Haizeak antolatuta, arte tailerra  
izango da Kultur Etxean. Gaia:  
Martin Lutero.

**27 barixakua**

*Musika*

**22:15** Miskiren aldeko  
kontzertua  
Haritz dantza taldeak eta  
*Expresion Sonora* musika  
taldeak eskainitako kontzertua.  
Herriko Antzokian.



**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 20**

Eibarrera kaldereroak ikustera  
17:00 - 21:00

**ZAPATUA 21**

Karnabak ospatzera goaz plazara  
17:00 - 21:00

**DOMEKA 22**

Sasikoipetzu 17:00 - 20:00

**MARTITZENA 24**

Mihiluze txapelketa 17:00 - 20:00

**EGUAZTENA 25**

Txoko pribatua 17:00 - 20:00

**EGUENA 26**

Bloga berri 17:00 - 20:00



**LUDETEKAKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 20**

Mozorro festa. Ekarki zure  
mozorroa! 17:30 -19:00

**ZAPATUA 21**

LH4-6koekinherriko inauterietan parte  
hartuko dugu 16:00 -19:30

**ASTELEHENA 23**

Indiar billarra 17:30 - 19:00

**MARTITZENA 24**

Pailazoaren emanaldira irteera 16:00 -19:00

**EGUAZTENA 25**

Sukaldaritza tailerra 17:30 - 19:00

**EGUENA 26**

Eskulanak 17:30 - 19:00

**«El intercambio»**

20, barixakua: 22:15  
21, zapatua: 19:00/22:15  
22, domeka: 19:00  
23, astelehena: 21:30

**EL INTERCAMBIO.** AEB, 2008.

Zuzendaria: Clint Eastwood.

Aktoreak: Angelina Jolie, John Mal-  
kovich, Michael Kelly.

Iraupena: 141 min.

Los Angeles, 1928. urtea. Christine  
Collinsek semea berreskuratu du, ha-  
ren bahiketaren ostean. Baina itzuli  
dioten haurra berea ez dela susmatzen  
hasiko da.





## INAUTERIAK 2009

### 20 BARIXAKUA

#### 15:15 Euskal Inauteria

Ikastolako hurrek kalejira eta dantza saioa egingo dute.

Plaza Handian.

(Euria bada, Ikastolan)

#### 22:30 Kontzertua

Sinuose taldeak musika emanaldia eskainiko du Kultur Etxeko sotoan.

### 21 ZAPATUA

#### 17:00 Abxubikaraokea

Atxutxiamaiak antolatuta, karaoke saioa.

Plaza Handian.

#### 18:00 Txokolate jana

Zuhaitz aisialdi taldeak antolatuta, Plaza Handian.

#### 18:30 Mozorro desfilea eta koreografia

16 urtera arteko gaztetxoentzat, Atxutxiamaiak antolatuta. Plaza Handian.

#### 19:00 Mauxitxa txaranga

Txarangaren kalejira, erraldoi eta buruhandiekin.

#### 24:00 - 02:00 Mauxitxa txaranga

Txarangaren kalejira.

### 22 DOMEKA

#### 18:00 Dantzaldia

Geltaxo orkestrarekin dantzaldia jubilatuen egoitzan.

### 24 MARTITZENA

#### 16:30 Mozorroren elkartzea

Plaza Handian.

#### Jarraian, Pailazoak

Kiki, Koko eta Moko. Plaza Handian.

#### 18:00 Mauxitxa txaranga

Kalejira erraldoi eta buruhandiekin.

#### 18:30 Dantzaldia

Geltaxo orkestrarekin jubilatuen egoitzan.



*inauteriak*

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Hizkuntzak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Alemana, euskara, frantsesa, ingelesa

Non: Eibarko Hizkuntza Eskola ofizialean

Matrikulazioa: Martxoaren 18ra arte.

Informazio gehiago: [www.eoieibartheo.net](http://www.eoieibartheo.net)

### Ipuinkontaketa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Noiz: Otsailak 28

Non: Mutrikun

Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Bideoen edizioa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-21 / Bukaera data: 2009-05-28

Non: Eibarren

Izena emateko: Kontsultatu

### Sinbologia

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-27 / Bukaera data: 2009-05-12

Non: Elgoibarren

Izena emateko: Kontsultatu

### Elikagaien manipulazioa

Norentzat: Interesatuentzat, ez da ezagupenik behar

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-03-24 / Bukaera data: 2009-03-30

Non: Donostian

Izena emateko: 943 429 003

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

### «El lince perdido»

22, domeka: 16:30

### «Cinturon rojo»

(Ongarri zine kluba)

26, eguena: 21:30

**CINTURON ROJO.** Zuzendaria: David Ma-met. Aktoreak: Chiwetel Ejiofor, Alice Braga. Iraupena: 99 min. Mike Terry Jiu-Jitsu akade-miako irakasle nagusia da. Maila bikaina duen arren, ez du nahi txapelketa profesionaletan

parte hartu. Gau batean, Chet Frank aktore ezagunaren borroka larri batetatik ateratzen lagunduko dio, eta horrek zinearen munduan barnertatuko du. Hortik abiatuta, aspaldi laga-ta zeukan txapelketa baten murgilduko da.

herritik kanpo



## maider lehr

**Maider Lehr Elgoibartarrak zazpi hilabete daramatza AEBetako Portland hirian bizitzen. Doktoretza egitera joan da, eta gutxienez bost urte emango ditu han. Esperientzia oso ona bizitzen ari dela dio Lehrrek, eta hartutako erabakiaz pozik dagoela. Elgoibartik urrun badago ere, BARREN jasotzen du etxean hemengo albisteen berri izateko.**

### “Portland Euskal Herriaren oso antzekoa da: berdea eta menditsua”

**Noiz joan zinen Estatu Batuetara? Non zaudete zehazki?**

Orain dela zazpi hilabete pasa etorri nintzen Ameriketako Estatu Batuetara eta Portlanden (Oregon) nago, AEBetako Ipar mendebaldean.

**Zertara joan zinen?**

Doktoretza egitera etorri nintzen OHSU (Oregon Health and Science University) unibertsitateko zientzia eta informatikako departamentura. Bost urtetarako etorri naiz, baina beste urteren bat gehiago behintzat beharko dut bukatzeko. Ahots prozesamenduaren inguruan egiten dut lan: ahots eza gutza automatikoki biomedikuntzako aplikazioetara zuzenduta. Adibidez, ahots prozesamendua erabiliz alzheimer-a moduko gaixotasunak detektatzen saiatzea oraindik oso garatuta ez dagoenean.

**Nolakoa da bizimodua Estatu Batuetan?**

Ez dut arazo handirik izan hemengo bizimodura moldatzeko. Portland Euskal Herriaren oso antzekoa da, oso berdea, menditsua eta euritsua. Jendearen estiloa ere mendizale itxurakoa da eta janari organikoa eta barazki naturalen merkatuak nonahi aurkitzen dira. Garraio publikoa oso ondo dago, AEBetako beste hirietan ez bezala. Eta bizikletan ibiltzeko ere oso egokia da. Jendea dagoakionez, nik behintzat gauza onak baino ezin ditut esan.

**Zelan jarraitu dituzu hauteskundeak? Obamarekin egoerak hobera egingo al du?**

Ez ditut hauteskundeak gehiegi jarraitu. Or-

du dezente lan egin behar izaten dut eta gainera ez daukat oraindik telebistarako etxean. Hala ere, esan dezaket Portland-en jendea oso Obamaren aldekoa dela. Portland oso leku progresista da.

**Estatu Batuetan ere igartzen al da krisia?**

Intel-eko zentrala dago hemen eta bost bulego itxi zituztela entzun nuen. Gure departamentuan ere aldaketak igarri dira urte hasierarekin batera. Zenbait gauza moztu dituzte gastuak gutxitzeko.

**Zer botatzen duzu faltan?**

Lagunak eta familia maizago ikusi ahal izatea eta Gabon Zahar feria, Behobia eta halako egun seinalatuak. Osterantzean oso gustura nago hemen.

**BARREN jasotzen duzu ozeanoaren beste aldean. Zer sentitzen duzu Elgoibarko berri izatean?**

Zain-zain egoten naiz BARREN noiz iritsiko! Lanetik bueltatzean buzoian begiratu eta han dagoela ikustean kriston poza hartzen dut.

**Zu bisitatzera joango bagina, zer erakutsiko zeniguke?**

Multnomah urjausiak, Washington Park, downtown-a eta Hawthorne Boulevard aldean erakutsiko nizkizueke adibidez. Azken zona hau oso alternatiboa eta bohemioa da. Eta garagardo bat hartzeraren joango ginateke hiri barruan garagardotegi gehien daukan hiria delako. Ah! Eta Blazers NBA saskibaloitako taldeko partida bat ikustera ere bai. Kriston espektakulua da!



Portland-eko itsasargia



# MITINA

OTSAILAK 21, 12etan EIBARKO COLISEOan

PARTEHARTZAILEA:  
JUAN JOSE IBARRETXE



 **iba  
rre  
txe**

## ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO


# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Indusketa lanak

### Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.es  
www.excavacioneslekunberri.com



## Lorzaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelal

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

### Desigual

San Inazlo, 5 behea  
☎ 943 748 925  
☎ 677 846 069  
Faxa: 943 531 502  
pinturasdesigual@hotmail.es